BIZKAIKO GURUTZE GORRIA

2016ko TXOSTENA



Pertsonengandik gero eta hurbilago

Cruz Roja
Gurutze Gorria

EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun indibidualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

GIZATASUNA · INPARTZIALTASUNA · NEUTRALTASUNA · INDEPENDENTZIA
BOLUNTARIOTZA · BATASUNA · UNIBERTSALTASUNA

TOKIKO / ESKUALDEKO 11 BATZAR

Arratiako Harana (946 736 262)

Bermeo (946 883 616)

Bilbo (944 103 984 - 944 163 183)

Durangaldea (946 309 323)

Enkarterri (946 670 584 - 946 107 008)

Ezkerraldea (944 936 560)

Gernika (946 251 988)

Lea Artibai (946 831 929)

Mungia (946 741 226)

Nerbioiko Harana (944 263 730)

Uribealdea (944 609 295 - 944 642 215)





Javier Zarraga Castro
Bizkaiko Gurutze Gorriko Presidentea

Bizkaiko Gurutze Gorria
Cruz Roja Bizkaia

Adiskide agurgarriak,

Memoria hau, behar gehien duten pertsonei zuzendutako 2016ko jardueraren isla da. **Lanez, ilusioz eta elkartasunez** betetako ekitaldia, Bizkaiko Gurutze Gorriko taldearen aldetik.

87.347 pertsonak hartu dute parte eskainitako zerbitzuetan, edo zerbitzu horien beharra izan dute, eta horrek gure goiburuarekin leial izaten jarraitzera bultzatzen gaitu *"Pertsonengandik gero eta hurbilago"*.

Hedapen handia izan duen **Gizarteratze** Sailak 25 herri baino gehiagotara eraman gaitu, **errefuxiatuekin gauzatutako 3.600 esku-hartzerekin.** Gizartea migrazio krisialdiaren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko xedez, **"Hurrengo geltokia: etorkizun bat"** erakusketa sustatu genuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Metro Bilbaorekin. **74.449 orduko banakako arreta eskaini diegu lan bila ari diren pertsonei, eta horri esker %34,5eko laneratzea lortu dugu lan ibilbideetan. Etxerik ez duten pertsonengana** egindako irteerak ere aipatu behar ditugu, haien errealitatera hurbiltzen gaituen eta printzipio eta ideal asko lekuz aldatzen dizkigun oso esperientzia gomendagarria.

Gertutasunari dagokionez, **jarraipeneko 48.843 dei eta laguntasun erregularreko edo noiz behinkako 11.799 esku-hartze egin ditugu 556 pertsonarekin, gehienak gure inguruko nagusiak.** Lan hori gure boluntario beteranoek egin dute.

Gure **ohiko proiektuak:** Osasuna, Prestakuntza (8.385 ikasle, lanbide heziketaren eta titulu propioen artean), Salbamendua eta Sorospena hondartzetan (erabiltzaileek emandako nota, 9,7, 10etik), Ingurumena, Boluntarioak (10.485 pertsona), Gazteriaren Gurutze Gorria, Nazioarteko Lankidetza (Foru Aldundiak finantzatutakoa, Libanoko eremuetan errefuxiatutako emakume siriarrentzako osasun egitasmoa), Sorospenak eta Larrialdiak (ERIE ekintzak, prebentziozko 1.392 zerbitzurekin lurrean eta itsasoan).

Azpimarratzekoak dira **Ondarroan gertaturiko luizien ondorioz etxebizitza barik geratutako familiei** eskainitako arreta; 200 oheko aterpetxea Loiuko kiroldegian, hegaldi batean gertaturiko atzerapenaren ondorioz, lo egiteko lekurik ez zuten **143 ume sahararrei** eta euren laguntzaileei arreta eskaintzeko; eta baita Gorlizko badian pirautxoetan nabigatzen ari ziren eta lehorreko haizearen eraginez itsaso zabalerantz zihoazen **23 gazte holandarren eta 2 begiraleren** salbamendua ere.

Aipatzekoa da, baita ere, **Sare Sozialetako** komunikazioa indartzeko egiten ari garen lana, informazio iturri arina eta berehalakoa delako, eta baita Emakunderen **Berdintasunerako XIII. Foroan** izan dugun partaidetza ere, berdintasunarekin eta genero indarkeriaren prebentzioarekin dugun konpromiso irmoaren adierazgarri.

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hori posible egin duten **guztiei:** gure bazkide leialei (23.414), erakunde eta instituzio laguntzaileei (699), langileei, finantzatzaile eta emaileei, gure Administrazio Publikoei eta gure laguntza jasotzeko egunero Gurutze Gorriarengan konfiantza erakusten duten pertsona guztiei, laguntzeko aukera eskaintzen digutelako. Eta, batez ere gure jardueraren indarra eta motorra diren boluntarioei.

Helburu gehiago lortzeko gogoetarako tresna den txosten hau **edozein iradokizun edo hobekuntzarako ideia jasotzeko irekita dago.** Ziur lagungarri izango zaizkigula aurrera egiten jarraitzeko.

Eskerrik asko.

ZER EGITEN DUGU?

7 · OSASUNA

11 · SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

15 · ITSAS SALBAMENDUA

17 · LAGUNTZA, SALBAMENDU ETA SOROSPEN ZERBITZUA BIZKAIKO HONDARTZETAN

19 · GIZARTERATZEA ETA GERTUTASUNA

25 · ENPLEGUA

29 · PRESTAKUNTZA INSTITUTUA

33 · BERDINTASUNA

35 · INGURUMENA

37 · GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA

41 · NAZIOARTEKO LANKIDETZA

NORK EGITEN DU?

45 · BOLUNTARIOAK, LANGILEAK, PARTAIDETZA ETA TOKIKO GARAPENA

ZELAN EGITEN DUGU?

53 · BALIABIDEAK

55 · KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

ZELAN FINANTZATZEN DA?

59 · BAZKIDEAK

61 · FUNTSEN BILKETA ETA ENPRESEN LANKIDETZA

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

65 · KUDEAKETA EKONOMIKOA

67 · JARDUERAREN DATUAK

71 KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

ZER EGITEN DUGU?

-



OSASUNA

Bizitzeko ohitura eta estilo osasungarrien sustapena.

...

Biztanleen osasuna prebentzioaren ikuspegitik, eta ohitura osasungarrien eta sentsibilizazioaren sustapena, etengabeko ardura dira Erakunde honentzat. Hori horrela, Gurutze Gorriak, bizkaitarren bizitza kalitatea hobetzea bilatzen duten proiektuen eta ekimenen garapenerako aukera ematen duen eremu sozio-sanitarioa eraikitzen du.

Deskribatutako ildoan, Planaren Helburua hau izango dela azpimarratu behar da:

· Helburua, bizitzeko ohitura eta estilo osasungarriak sustatzea izango da, eta baita trafiko, etxeko eta aisiako istripuak prebenituko dituzten jokaerak eta jarduketak sustatzea ere, biztanle guztien artean eta, batez ere, egoera zaurgarriagoa duten edo arrisku gehiago dutela dirudien taldeen artean.

2016. urtean Osasun Plana gidatu duten, eta osasunaren sustapenaren ikuspegia garatzeko gune izan diren **lehentasunezko osasun alorrak** hauek dira:

· Istripuen prebentzioa.

- "Prebenitzea bizitzea da" istripuak prebenitzeko kanpaina: "Uda honetan, maite ezazu zeure burua", "Errepidean, maite ezazu zeure burua", "Etxean, maite ezazu zeure burua"...

· Transmisioko gaixotasunen prebentzioa.

- Sentsibilizazioa gripearen Kanpainaren Gertutasun Metodologiaren bitartez.
- Sexu Transmisiozko Gaixotasunen Prebentzioa.

· Osasunaren sustapena eta osasunerako hezkuntza.

- Puntukako osasunaren PUNTUAN proiektuan parte hartzea eta Lidergoa.
- Lehen laguntzei eta bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko prestakuntza herritar guztientzat.



Transmisiozko gaixotasunen prebentzioa

Gripe eta Sexu transmisiozko Gaixotasunen kanpaina

929 Artatutako pertsonak

Osasun sustapena

Hotzaldien eta Beroaldien aurreko aholkuak

764 Artatutako pertsonak

Prestakuntza eta Osasun sustapena

Lehen Laguntzen Jardunaldiak - RCP

1.393 Artatutako pertsonak

Beste osasun kanpaina batzuk

Arrisku kardiobaskularraren prebentzioa
Elikadura osasungarrirako kanpaina

382 Artatutako pertsonak

GUZTIRA ***3.468*** Artatutako pertsonak

Osasunaren Munduko Eguna: “Diabetesa” (apirilak 7)

Urtero legez, Bizkaiko Gurutze Gorriaren OSASUN PLANAREN barruan, **OSASUNAREN MUNDUKO EGUNA** ospatu dute **apirilaren 7an,** Osasunaren Mundu Erakundeak proposatutako gaia aintzat hartuta: **“Diabetesa”.**

Kanpainak sedentarismoa, gehiegizko pisua eta obesitatea saihestea izan du helburu, jarduera fisiko osasungarria eta erregularra egitea, dieta mediterraneoa jarraitzea edo “mirarizko dietei” ihes egitea, 2 motako diabetesa prebenitze aldera.

Bizkaiko Gurutze Gorriak gazteengan jarri nahi izan du arreta, adin goiztiarretan ikasten baitira elikadura eta bizi ohitura osasungarriak. Hori dela eta, aste horretan **sentsibilizazio kanpaina** bat egin zen **ikastaro** guztietan, baita **eskola arrakastari eta askari osasungarriei buruzko programan** ere, haurtzaroan babesa eta hezkuntza mailako laguntza emateko. Kalkuluen arabera, ekintza horrekin, guztira **100 umerengana eta 500 gazterengana** heltzea lortu da.

Gainera, kanpaina horretan lan kontratuko langileek ere parte hartu dute, eta apiril guztian gaiari buruzko informazioa jarri dute etengabe Bulego Probintzialeko informazio pantailan.

Istripuen prebentzioari eta lehen laguntzei buruzko sentsibilizazio proiektua

2016ko uztailean, abuztuan eta irailean, Bizkaiko Gurutze Gorriak sentsibilizazio eta informazio proiektua gauzatu du istripuen prebentzioaren eta lehen laguntzen inguruan. Hala, hainbat sentsibilizazio jardunaldi egin ditu tailer hezigarri eta ludikoekin, Bizkaiko hondartzetako erabiltzaileentzat.

Udako sasoiari lotutako hainbat arrisku prebenitzeko beharrizanaz jabeturik, **“Uda honetan, maite ezazu zeure burua” kanpainaren XIV. edizioa** jarri zuen martxan Bizkaiko Gurutze Gorriak, epe ertainera eta luzera hiru helburu nagusi lortzeko:

- Herritarrak informatzea udak dakartzan arriskuez, haren ondorioez eta, batez ere, horiek prebenitzeko hartu beharreko neurriez.
- Udako ohiko istripuen aurrean jarrera aktiboa hartzeko beharrizanaz sentsibilizatzea, ahal den neurrian istripuak ekidinez.
- “Prebentzioaren kulturarekiko” jarrera harkorra lortzea, bereziki positiboak diren gomendioak eta aholkuak oinarri hartuta.

Kanpaina horren aurkezpena Plentziako hondartzan egin zen, hainbat irakaslerekin, boluntariorekin eta Plentziako hondartzako sorosleekin elkarlanean eta koordinatzaile nagusiarekin batera.



Aurkezpenean, **25 bat pertsonak** hartu zuten parte tailerretan eta 65 informazio eskuorri banatu zituzten.

Halaber, **lehen laguntzen eta bihotz-biriketako bizkortzearen inguruko tailerrak** egin dituzte Bizkaiko 19 hondartzatan, eta **450 bat pertsonak** hartu dute parte. Guztira, 1300 informazio eskuorri banatu dituzte.



Lehen laguntzen Mundu Mailako Egunaren ospakizuna (irailak 10)

Bizkaiko Gurutze Gorriak **Lehen laguntzen Mundu Mailako Eguna ospatu zuen irailaren 10ean Bilboko Plaza Biribilean, hainbat ekimen burutu ziren, besteak beste, bihotz-biriketako bizkortzeari, zaurien sendaketari, bendak jartzeari, AVA jarrerari** (Arriskua ohartarazi - Izan daitezkeen arriskuak baloratu – Portaera ziurra hartu) eta **PASi** (Babestu- Ohartarazi- Sorotsi) **buruzko tailerrak.** 201 pertsonak hartu zuten parte (159 helduk eta 42 umek).



Haurrak alor horretan prestatzeak duen garrantzian zentratu zen Lehen Laguntzen Munduko Egunaren ospakizuna. Haurrek istripuak izateko aukera gehiago dituzte egunerokobizitzan. Urtero-urtero, 18 urtetik beherako 950.000 ume inguru hiltzen dira zaurien edo indarkeriaren ondorioz. Heriotza horien % 90 inguru nahi gabe egindako zauriengatik gertatzen dira, trafiko istripuen, itotzeen, erorikoen, suteen edo pozoitzeen ondorioz. Horregatik, gurasoak lehen laguntzen prestakuntzan inplikatzea funtsezkoa da adingabeen segurtasunerako.

Bihotz-Biriketako bizkortzearen astea (urriaren 17tik 20ra)

2016ko urriaren 16an Bihotz-Biriketako Bizkortzearen (BBB) Munduko Eguna izanik, Bizkaiko Gurutze Gorriak **BBBren astea** antolatu zuen **urriaren 17tik 20ra** bitartean, eta hainbat jarduera gauzatu zituen Bilboko Prestakuntza Institutuan.

Europan, 700.000 pertsona hiltzen dira bat-bateko heriotzaren eraginez, eta urtean 100.000 pertsonak pairatzen dute bihotz-biriketako gelditzea ospitaletik kanpo. Bihotz-biriketako gelditze horietako asko lehengoratu egin daitezke laguntza katearen aktibazio goiztiarrari eta bihotz-biriketako bizkortze goiztiarrari esker, eta, BBB goiztiar horri kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa gehitzen bazaio, emaitza onenak lortzen dira. Horrenbestez, garrantzitsua da gizartean ahalik eta pertsona gehien egotea trebatuta BBB teknikan.

Aste horretan, **oinarrizko bizi euskarriaren eta desfibrilazioaren** gaineko sentsibilizazio eta informazio saioetan hainbat ikastetxetako 200 bat ikaslek eta Gurutze Gorriaren prestakuntza zentroko ikasleek hartu zuten parte.

Urriaren 20an, 18:30ean, BBBren asteari amaiera emateko, **mahai-ingurua** egin zen, **"Herritarrak lehenak esku hartzen bihotz gelditzeetan"** izenburupean, gaian adituak diren hizlarien parte hartzearekin. Alor horretan herritarrak trebatzeari garrantzia ematea eta bizitzak salbatu ahal izatea izan zen jardunaldiaren helburua.



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

Erantzun azkarra eta biktimen beharretara egokitua, larrialdi edo krisi egoeretan.

...

Laguntza eta Larrialdi Plana Gurutze Gorriaren ekintzaren zutabe nagusietakoa da. Horrela, gogoratu behar da helburua hau dela: larrialdi edo krisi egoeretan biktimen beharrei erantzun azkarra eta egokia ematea, biztanle guztiei zuzendua, orokorrean, eta arreta berezia jarriz pertsona zaurgarrienengan, lehenengo laguntzak tokian bertan eskainiz, eta, hala badagokio, ospitale batera eramanez.



LURREKO ETA ITSASOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Zerbitzu horiek, pertsona asko elkartuko direlako edo ekitaldiaren ezaugarri bereziak direla eta, arriskuak izan ditzakeen ekitaldi edo ebentu baten estaldura egiteko orduan martxan jartzen den gizarte-osasun alorreko antolakuntzari, plangintzari eta arretari dagozkie.

- Kulturalak: erakusketak, jardunaldiak, topaketak, jai herrikoiak...
- Kiroletakoak: futbola, saskibaloia, rallyak, estropadak, irristaketa, bela, txirrindularitza...
- Bestelakoak: kontzertuak, prozesioak, erromeriak, erakusketak, erakustaldiak.

Iaz, 874 boluntario eman zuten izena ekimen honetan. Gehien bilatzen diren soslaiak sorosleak, larrialdi teknikariak, erizainak, medikuak, sos akuatikoak, patroiak, koordinatzaileak, logistak... dira.

Lurreko **1.309 prebentzio zerbitzu** gauzatu dira, eta uretako **154 prebentzio zerbitzu** iazko 12 hilabeteetan banatuta. Lurreko prebentzio zerbitzuen artean, 712 kirol ekitaldiak izan ziren, 104 ikuskizunak eta kontzertuak, 283 kultura eta gizarte arlokoak eta 139 herrietako jaiak.

Gure estaldura garrantzitsuenen artean hauek azpimarra ditzakegu:

- Bilbao-Bilbao Nazioarteko Zikloturista Martxa, 9.000 txirrindularirekin.
- Bilboko Herri Krosa Herri Lasterketa, 8.000 lasterkarirekin.
- Aurten Durangon ospatu den Ibilaldia, 60.000 pertsonarekin.
- Bilbon egindako Badminton Junior Munduko Txapelketa.



LARRIALDIETAN BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO TALDEAK – ERIE

Erantzun eredu hori, larrialdi egoera batean sortzen diren biktimen beharrei erantzuna eta arreta emateko egituratzen da. Erantzun espezializatua da, taldeak, boluntario gisa herritarren parte hartzea, bultzatuko duten eredu bilakatzeko helburuz.

Proiektu honek helburutzat du Larrialdien eraginak txikitzean laguntzeko aukera ematen duten jarduera eta eginbehar multzoa biztanle eta Administrazioaren eskura jartzea, giza sufrimendua arinduz, bizitzak salbatuz, batez ere pertsonen osasuna eta euren ingurumena babestuz.

Talde horiek SOS DEIAKekin dagoen koordinazioaren bitartez aktibatzen dira, hainbat larrialditan parte hartuz, hau da: mendiko bilaketak, uholdeak, ekaitzak, suteak, etab.

Bizkaian dauden taldeak hauek dira:

- Bilaketa eta Salbamendua Lurrean.
- Bilaketa eta Salbamendua Uretan.
- Biktimen Arreta eta Sailkapena.
- Behin behineko Aterpetxea.
- Laguntza Psikosoziala.

2016an azpimarratu behar da ekipo horiek eta Gurutze Gorriaren Lurralde Sarearen ahalmenak 61 aldiz mobilizatu direla. Bereziki azpimarragarria da, Ondarroako herrian gauzatutako mobilizazioa, Kamiñaldeko mendi hegaleko lur mugimenduaren ondorioz. Bertan 80 familia baino gehiago beste etxebizitza batzuetara eraman behar izan ziren. Pertsona horientzako etxebizitzak bilatzeaz gain, azpimarratzekoa da ERIE psikosozialak egindako lana, helduekin zein euren seme-alabekin ikastetxeetan, larrialdi horren ondorioz.

Beste alde batetik, desagertutako pertsonen bilaketan dugun partaidetzaren adibide gisa, azpimarratzekoa da joan den abuztuan 82 urteko gizon baten bilaketa. Beste alde batetik, aipatzekoa da, baita ere, Ondarroako izotz lantegian izandako eztanda zela eta izan genuen.



OSASUN POSTU AURRERATUAK – PSA

Behin behineko izaera duen arreta azpiegitura desmuntagarria. Bizi Euskarri aurreratua emateko neurriak hartzeko beharrezkoa den pertsona eta material azpiegitura dute.

Hedapena Bizkaian eskualde mailan: 6

Materiala: Denda desmuntagarria, garraiorako ibilgailu bat, 8 ohe, sendaketak egiteko materiala duten 2 tiradera, mantak, grupo elektrogenoa eta garraiorako ohexkak.



DATUAK ETA ZIFRAK

LAGUNTZAK ETA LARRIALDIAK	Pertsonak	Esku hartzeak
ERIEAK ETA LARRIALDIKO BESTE EGOERA BATZUK	**406**	**61**
Lurreko bilaketa eta salbamendua, alpinoa	44	20
Itsasoko bilaketa eta salbamendua		1
Erie Behin behineko Aterpetxea	180	2
Erie Psikosoziala	88	15
Erie Biktimen Sailkapena		
Beste larrialdi egoera batzuk (Kamiñaldeko mendi hegala Ondarroa)	4	3
PREBENTZIOZKOAK	**1.291**	**1.392**
Lurrekoak	1.247	1.238
Uretakoak	44	154
GARRAIO SOZIO-SANITARIOA	**168**	**167**
Estaldura prebentiboetatik deribatuak	5	5
Zerbitzu ez premiazkoak	6	6
Osasun larrialdiak		
Trafiko istripuak		
GUZTIRA	**1.865**	**1.620**



%69

Lurreko prebentziozkoak

Artatutako ***1.291*** pertsona
Artatutako ***1.392*** zerbitzu

%22

Jarduketak larrialdietan (ERIEak eta beste batzuk)

Artatutako ***406*** pertsona
Artatutako ***61*** zerbitzu

%9

Garraio sozio-sanitarioa

Artatutako ***168*** pertsona
Artatutako ***167*** zerbitzu

ITSAS SALBAMENDUA

Gizakien bizien segurtasuna itsasoan.

...

Hiru dira Bizkaian Itsas Salbamendu Programa aurrera daramaten Itsasoko baseak: Arriluze, Bermeo eta Ondarroa. Eusko Jaurlaritzarekin eta Itsasoko Salbamendurako eta Segurtasunerako Estatuko Sozietatearekin (SASEMAR) elkarlanean eramaten da aurrera zerbitzu hori. Zerbitzuaren helburua, itsasoan gizakien bizitzaren segurtasuna zaintzea da, eta jarduera nagusiak arriskuan dauden pertsonen eta ontzien bilaketa, salbamendua eta erreskatea dira.

Batzarra	Gurutze Gorria	Eusko Jaurlaritzak lagatakoa
Bermeo eskualdekoa	Bermeo II	Bermeo I
	Bizkaia III	Izaro 1
	Uretako motoa	
Uribe Aldea eskualdekoa	Basati	Dhube
	Ereaga	Arriluze IV
	Itxaso hiru	Arriluze III
	Uretako motoa	
Lea Artibai eskualdekoa	Aixe bolari	Merak
	Errekaxi	Ondarroa II
	Uretako motoa	
Bizkaiko Probintzia Bulegoa	Itxaso bat	
	Itxaso bi	





133

Larrialdia

97 Arriluze
24 Bermeo
12 Ondarroa



152

Prebentzio zerbitzuak

86 Arriluze
34 Bermeo
32 Ondarroa



82

Jardunbideak

68 Arriluze
8 Bermeo
6 Ondarroa



%63

Arriluze

Artatutako **137** pertsona

%25

Ondarroa

Artatutako **53** pertsona

%12

Bermeo

Artatutako **26** pertsona

GUZTIRA Artatutako **216** pertsona

LAGUNTZA, SALBAMENDU ETA SOROSPEN ZERBITZUA BIZKAIKO HONDARTZETAN

Bizkaiko biztanleriaren babesa hondartzetan.

Hamabigarren urtez jarraian, Bizkaiko Gurutze Gorriak Bizkaiko Foru Aldundiak gure lurralde historikoko hogeita hiru hondartzatan eskaintzen duen Salbamendu eta Sorospen zerbitzua kudeatzaren ardura izan du.

Zerbitzu horren helburua, udan, leku horietara joaten den jende kopuru handia dela eta, gertatzen diren arrisku egoerak prebenitzea da. Horrela, hondartzetara eta hondartza inguruetara joaten diren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak modu eraginkorrean egonkortzeko sistema ezartzen da, oinarrizko hiru zutaberen bitartez: prebentzioa, erreskatea eta lehen laguntzak.

2016ko udan hondartzetara joandako jende kopuruaren (3.111.116 pertsona guztira) ondorioz, Bizkaiko hondartzetako sorosle taldeak 9.468 arreta gauzatu ditu uda honetan, zerbitzuan emandako 1.100 ordu baino gehiagotan.

Une hauetan, Bizkaiko lurralde historikoak, baliabide material modernoenak dituen Salbamendu eta Sorospen Zerbitzua eskaintzen du, eta horiek erantzun azkarra eta segurua ematen du edozein larrialdiren aurrean. Horrez gain, prebentzioan oinarritutako paradigma integralerantz eta aurreraturantz egin da aurrera, gertakari larrien murrizketa eta herritarren aldetik zerbitzua ulertzeko orduan hobekuntza izatea lortu da.

Zerbitzuaren estaldura ondoren adierazten diren Bizkaiko hondartzetan eskaini zen, ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne:

- LA ARENAKO hondartza (Muzkiz-Zierbena)
- AREETAKO hondartza (Getxo)
- EREAGAKO hondartza (Getxo)
- ARRIGUNAGAKO hondartza (Getxo)
- GORRONDATXEKO hondartza (Getxo)
- BARINATXEKO hondartza (Sopela)
- ARRIETARA-ATXABIRIBILEKO hondartza (Sopela)



- MURIOLAKO hondartza (Barrika)
- PLENTZIAKO hondartza (Plentzia)
- GORLIZ / ASTONDOKO hondartza (Gorliz)
- ARMINTZAKO hondartza (Lemoiz)
- BAKIOKO hondartza (Bakio)
- ARITXATXUKO hondartza (Bermeo)
- LAIDATXUKO hondartza (Mundaka)
- TOÑAKO hondartza (Sukarrieta)
- SAN ANTONIOKO hondartza (Sukarrieta)
- LAIDAKO hondartza (Ibarrangelu)
- LAGAKO hondartza (Ibarrangelu)
- EAKO hondartza (Ea)
- OGELLAKO hondartza (Ispaster)
- ISUNTZAKO hondartza (Lekeitio)
- KARRASPIOKO hondartza (Mendexa)
- KARRASPIOKO- Txiki hondartza (Zainketa puntua Mendexako Dorretik - Mendexa)
- ARRIGORRI hondartza (Ondarroa)
- Playa de KARRASPIO-Txiki (Punto de vigilancia desde Torre en Mendexa)
- Playa de ARRIGORRI (Ondarroa)

GERTAKARI MOTAK





GIZARTERATZEA ETA GERTUTASUNA

Laguntza zaurgarritasun maila altuena duten pertsonei.

...

ESKU HARTZEA PERTSONA NAGUSIEKIN

Pertsona nagusien programaren abiapuntua eta helburua, pertsona nagusien eta gizarteko talde zaurgarrien gaitasunak indartzea da, euren eguneroko bizitzan, autonomia pertsonala eta taldekoa eta erabateko gizarteratzea erraztuz.

Ildo horretan, Bizkaiko Gurutze Gorriak pertsona nagusiekin duen esku hartzearen **helburu** nagusiak hauek dira:

- **Pertsona nagusien GIZARTE AINTZATESPENA ETA GIZARTE PARTAIDETZA** handiagoak lortzea. Horretarako, oso garrantzitsutzat hartzen da taldearen beste irudi bat ematea, aurretik ezarritako aurreiritziak eta kontzeptuak aldatzen eta horiei amaiera ematen ahaleginduz.
- **OHIKO INGURUNEAN JARRAITZEA** bultzatzea, familian, auzoan, etab. instituzionalizazioaren aurrean. Horretarako gure programak eta jarduerak erabiltzen ditugu.

• Zahartze aktiboarekin zerikusia duten proiektuak.

- **Zahartze osasungarria,** jarduera soziokulturalak, boluntario izaera sustatzea pertsona nagusien artean.
- **Aisialdi eta denbora librearen promozioa:** senderismoa, tai chia, erlaxazioa, eskulanak...etab bezalako jarduerak.
- **Ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak:** "ibaitik mugitzen", ingurumen-sustatzaile nagusiak.
- **Teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak:** tabletei eta smarthphonei buruzko ikastaroak.
- **PUNTUAN,** Gurutze Gorriak parte hartzen duen proiektua, zahartze aktiboari lagunduz ohitura osasuntsuak saritzen dituena.

• Menpekotasunarekiko prebentzioa eta laguntzarekin zerikusia duten proiektuak.

- **Pertsona nagusientzako sare soziala:** etxeko eta egoitzetako laguntza, eta unean uneko laguntzak.
- **Funtzio kognitiboak kaltetuta dituzten pertsonentzako arreta:** estimulazio kognitiboa etxean eta taldetan.
- **Informazioa eta gaitasuna zaindari informalentzat:** zaintzaileentzako ikastaroak eta www.guiaparamayores.org webgunea.
- **Egoitza-zentroen dinamizazioa.**
- **LOPE:** Pertsona nagusientzako GPS aurkitzailea.
- **Etxeko tele-laguntza.**



POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKAKO BORROKA

Baliabide urriak dituzten pertsonei eta familiei zuzendutako arreta eta laguntasun proiektua da, euren etxeetan sortzen diren hileko gastuei aurre egin ahal izateko. 2016ko urte honetan laguntza hauek eman ahal izango zaizkie familia horiei:

- Elikagai kanpaina: hileroko banaketa eta FEADen ez ohiko banaketa.

- Euren kargura adin txikikoak dituzten familientzako laguntza: Ume jaio berrientzako elikadura eta higiene sorta.

- Pobrezia energetikoa: hornidurak ordaintzeko laguntza.

- Unean uneko kanpainak: umeentzako produktuak biltzeko kanpainak:

  · Eskolako materiala: "Eskolara itzultze solidarioa" kanpaina.

  · Gosariak eta askariak: "Gosariak eta askariak bihotzarekin" kanpaina.



ETXERIK GABEKO PERTSONAK

- **Neguko kit-en banaketa:** hotza kentzeko arropa, lozakua, motxila, higiene kit-a...
- **Larrialdi Sozialaren Unitateak - UES – Gaueko irteerak:** etxerik gabeko pertsonentzako arreta kalean, edari beroen banaketa, oinarrizko osasun arreta.
- **Atseden gunea:** atsedenerako areto bat prestatzen da, eguneko ordutegiarekin, etxerik gabeko pertsonentzat, hotzaldia aktibatzen denean.
- **Behin behineko aterpetxea hotzaldietan:** 2016ko urte honetan 30 plaza prestatu dira Bilbon gaua igarotzeko.

HAURTZAROA ETA FAMILIA

- **Zailtasun sozialean dauden umeak..**

  - **Prestazioen banaketa ibilbidea duten familietako adin txikikoentzat:** uniformeentzako laguntza, eskola jantokia, eskolaz kanpokoak, eskola materiala... etab.

  - **Haurrentzako material banaketa:** Eskolara itzultze solidarioa, Barco de Vapor... etab, bezalako kanpainen bitartez.

- **Jostailu kanpaina:** jostailu berriaren banaketa, haurren eskubideei buruzko hedapena eta sentsibilizazioa.



- **Eskolako arrakasta:** ikastetxeetan tailerrak, askaria, higiene ohiturak eta eskola laguntzak egiten diren tokietan.
- **Munduari Jirabira:** udan, udaleku gisa, hainbat nazionalitateko adingabeekin egiten diren kulturarteko tailerrak. Bertan kulturartekotasuna eta gizarteratzea lantzen dira.
- **Alkarregaz:** helburu nagusi Lehen Hezkuntzatik DBHrako etapa aldaketa erraztea da, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen harremanak bultzatuz.
- **Hizkuntza klaseak:** hizkuntzan laguntza behar duten umeentzat (gaztelera eta euskara).
- **Ume jaioberrientzako produktuen mailegua:** lehenengo haurtzaroan arreta eskaintzeko artikuluen mailegu zerbitzua: aulkiak, sehaskak, hamakak... horiek erosteko zailtasunak dituzten familientzat.

ETORKINEN ETA ERREFUXIATUEN PROGRAMA

Bizkaiko Gurutze Gorriak 30 urte baino gehiago daramatza etorkinei arreta eskaintzeko programetan. Duela zenbait urtetik hainbat herrialdetan bizi izandako egoeraren ondorioz, Gurutze Gorriak, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonei laguntza ematera zuzendutako proiektuak garatzen zentratu da.

• **Nazioarteko asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei zuzendutako programa:** Hainbat zerbitzuk osatutako programa integrala da, horietako bakoitza bere helburuekin, baina osotasunean, programaren onuradun diren pertsonen harrera eta integrazioa finkatzea eta lortzea bilatzen dutenak.

Helburua, babes subsidiarioaren eskatzaileen edo/eta onuradunen aldi baterako harrera eta gizarteratze prozesuan laguntzea da, behar besteko autonomia maila lortu ahal izateko beharrezkoak dien tresnak eskainiz, biztanleria autoktonoari dagokionez baldintza berdintasunean.

Bizkaiko Gurutze Gorriak eskaintzen duen programa osatzen duten zerbitzuak hauek dira:

- Gizarte esku hartzea/Laguntza ekonomikoak.
- Aldi baterako harrera (11 etxebizitza - 62 plaza Bizkaian).
- Laguntza legala eta juridikoa.
- Interpretazioa eta itzulpena.
- Hizkuntzaren ikasketa.
- Gizarteratzea eta lan munduan sartzea.
- Laguntza psikologikoa.
- Goihabe: Bizkaiko Foru Aldundiaren programa, erabateko gizarteratzera heltzen ez diren eta nolabait autonomoa izango den bizimodua aurrera eraman ahal izateko erakundearen laguntzen beharra izaten jarraitzen duten nazioarteko babes eskatzaileei zuzenduta.



• **Itsasartetik heldu berri diren eta euren kontura adingabeak dituzten edo ez dituzten emakumeei zuzendutako Giza Laguntza programa:**

- **Harrera:** lehen harrera, adingabeen eskolaratzea, osasun txartela, gizarteratze ibilbideak egitea, etab. (etxebizitza 1 - 8 plaza Bizkaian).
- **Gizarteratzera zuzendutako tailerrak:** etxeko ekonomia, gizarte alorreko trebeziak...
- **Ingurune berrira eta harrerako herrialdera egokitzea zuzendutako tailerrak:** sexualitatea, elikadura ohitura osasungarriak, ingurunearen ezagutza, tradizio kulturalak...
- **Laguntasunak:** kudeaketetara, osasun etxeetara, eroskketetara... Lan koordinatua erakundeekin, trata sareak hautemateko.

• **Muturreko zaurgarritasun egoeran dauden etorkinei zuzendutako Harrera programa:**

- **Harrera:** Bilbora heldu berri diren etorkinei zuzendutako giza baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza. (etxebizitza 1 - 6 plaza Bizkaian).
- **Gizarteratze ibilbideak:** ostatu laguntzak, botika, mantenua, mediku jarraipenak, dokumentazioa bideratzea.

• **Programa AHOLKU SAREA:** lege aholkularitza atzerritartasun alorrean. (315 pertsonari eskaini zaie harrera).

• **Bizikide izaten tailer kulturala:**

- **Gaztelerazko klaseak:** alfabetatzea, maila ertaina eta goi-maila (230 partaide).
- **Hizkuntza bikoteak:** bertako boluntarioekin hizkuntza 10 astetan praktikatzea. (37 partaide).
- **Irteera kulturalak:** proiektuko boluntarioekin eta erabiltzaileekin bisita gidatuak eta txangoak euskal kultura eta ohiturak ezagutzeko. (127 partaide).



ESKU HARTZEA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEKIN

Jada existitzen diren sare sozialetan aniztasun funtzionala duten pertsonen partaidetza edo/eta integrazioa sustatzea, ezintasun fisiko maila altua duten pertsonen gizarteratze maila handitzea aisia eta denbora libre jardueretan duten partaidetzaren bitartez, eta dauden laguntza baliabideak erabilgarriago egitea dira egitasmo hau gidatzen duten helburu nagusiak eta, azken finean, mugikortasun urria duten pertsonei hainbat jardueratan parte hartzeko eta aukera bakarra garraio publikoaren erabilera izanik, egiteko zailak diren gauzak egiteko aukera ematen diete.

- **Garraio egokitua:**
  - **Zerbitzu erregularrak:** eguneko zentro, egoitza eta gainontzeko erakundeetara joan-etorriak.
  - **Aldian behingo zerbitzuak:** kudeaketak egitera, mediku zerbitzuetara... joateko laguntzak.
  - **Aisialdia eta denbora librea:** minusbaliotasuna duten pertsonentzako aisialdi eta denbora libre jarduerak.
- **Laguntza produktuak:** laguntza teknikorako mailegu zerbitzua (gurpil-aulkia, taka-takak, ohe artikulatuak, makuluak, etab.)



GUZTIRA **11.835** Erabiltzaileak **48.843** Gindako deiak

ZAILTASUN SOZIALAK DITUZTEN EMAKUMEAK

Bizkaian 2005etik **Teleasistencia móvil para víctimas de la violencia de género – ATENPRO** izeneko proiektua kudeatzen da**.**

Zerbitzuak ondorengo prestazioak ditu:

- Alarmen arreta, GPS kanal, gelaxka edota GSM triangelaketatik.
- Urruneko kokalekua.
- Agenda zerbitzua.
- Baliabideen kudeaketa eta aktibazioa.
- Arreta Zentrotik erabiltzaileentzako arreta psikosoziala (24 ordu).
- Balio erantsia duten jarduera osagarriak.
- Gurutze Gorriaren gainontzeko zerbitzuetan integrazioa.
- Etengabeko jarraipen soziala, alor honetan prestatuta eta espezializatuta dauden langileen aldetik.



KARTZELETAN DAUDEN PERTSONAK

Trabajos en beneficio de la comunidad.

ERKIDEGOAREN ALDEKO LANAK Beste urte batez, Gurutze Gorriak, zigortuta dauden pertsonei zuzendutako egitasmoaren kudeaketan hartu du parte, erkidegoaren aldeko lanak egin ditzaten.

TOKIKO GERTUTASUNA

Tokiko gertutasunaren helburua, ingurunean zaurgarritasun egoera larrienean dauden pertsonei oinarrizko gizarte arreta, eta, gizarte arrisku eta bazterketa faktoreak prebenitzeko eta murrizteko beharrezkoak diren gizarte baliabideetara heltzeko eta horiek erabiltzeko beharrezkoa den informazioa ematea da. Metodologia horren bitartez, Gurutze Gorriak, pertsona zaurgarrienen gertuko jarraipena egin dezake, lagunduz eta, horrela, boluntario baten beharra izan dezaketen egoerak hautemanez.

- **Jarraipen deiak:**

- Pertsona nagusiak: telefono bidezko asteroko laguntza jarraipen deiak, unean uneko laguntzak gogoratzea, baliabideen informazioa, ingurumenarekiko sentsibilizazioa.
- Gainontzeko taldeak: asebetetze galdera-sorta, hitzorduen oroigarriak, etab.

- **Kanpainak:** hainbat gairen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa: bero garaiak, gripearen aurkako txerto kanpaina, hotz handiko garaiak.

ENPLEGUA

Enplegua eskuratzea, gizarteratzeko tresna gisa.

...

ENPLEGU PLANA

Bizkaiko Gurutze Gorriaren Enplegu Planaren helburua, gizarte arazoak dituzten edo lan merkatutik urrun dauden pertsonek, lanpostua eskuratzeko eta horri eusteko aukera izatea da, baldintza berberekin, gizarteratzeko tresna gisa.

Egitasmoaren helburua, lan egiteko aukerei dagokienez gabeziak dituzten pertsonen gizarte-lan insertzioa hobetzea da, planifikatutako eta adostutako ibilbide baten garapenaren bitartez, norberaren gaitasunak hobetuz eta gaur egungo lan merkatuaren errealitatera egokituz, ondoren ere lan merkatu horretan jarraitzea eta autonomia izatea bermatuz.

Helburuak

· Pertsonen aukerak eta gaitasunak indartzea, enplegua aurkitzeko aukerak handituz eta lan merkatuan sartzeko prozesuetan aktibo izango dituzten egitasmoak gauzatuz.

· Zailtasun gehien dituzten herritarren lan insertzioa bultzatzea, pertsona horien gizarteratzea lortzeko.

· Pertsonen inklusioa bultzatuko duen lan eta gizarte ingurunea sortzen laguntzea, lana aurkitzeko orduan aukera berdintasunak zaildu ditzaketen generoaren, jatorriaren edo adinaren ondoriozko oztopoak murriztuz.

Proiektuak

2016an, Bizkaiko Gurutze Gorriak honako proiektu hauetan egin du lan:

- **Gizarte Inklusiorako eta Ekonomia Sozialerako Programa Operatiboa (POISES):** Laneratzeko ibilbideak 30 urtetik gorako pertsonentzat.
  - **Ibilbide integralak gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat:** zailtasun sozialak dituzten pertsonek lan arloan aukera berdintasuna izatea dute helburu.
  - **Enpresen eta gizartearen erronka laneratzea bultzatzeko - ALIANTZAK:** enpresak eta gizartea hartzen ditu ardatz, gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen laneratzea sustatzeko.
- **Gazteen Enplegurako Programa Eragilea (POEJ):** proiektuak Gazte Bermean inskribatuta dauden 30 urtetik beherako pertsonei zuzenduta daude.
  - **PULSA proiektua - Laneratzeko aktibazioa, orientazioa eta laguntza Gazte Bermean dauden gazteentzat:** gazteak motibatzea eta aktibatzea, lan orientazioa eta aholkularitza eta laguntza.
  - **Prestakuntza Gazte Bermean dauden gazteentzat:** jarduera horietan enplegagarritasuna hobetzen da, konpetentzia pertsonalak, zeharkakoak eta tekniko profesionalak garatuz eta ikasiz.
  - **Lan eginez ikasi:** prestakuntza jasotzeko neurri espezifikoa da, ikasketetan emaitza eskasak dituzten eta ahultasun egoeran dauden familietako gazteei zuzenduta.



• **TESEO:** proiektu hori Harrerarako eta Integraziorako Programa Integralaren barruan txertatutako zerbitzua da eta honako hauei zuzenduta dago: asilo eskatzaileak, errefuxiatuak, aberrigabeak, aldi baterako babes erregimenean eta bestelako babes subsidiarioko estatutuen menpe daudenak eta ahultasun egoeran eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden immigranteak.

• **Profesionaltasun agiriak lortzeko prestakuntza:** laneratzeko ibilbideak dira, Gazte Bermean inskribatuta dauden 30 urtetik beherako gazteei zuzendutakoak. Hiru profesionaltasun agiritako partaideekin gauzatu da:

- Jatetxeko eta tabernako oinarrizko lanak.

- Merkataritzako jarduera osagarriak.

- Eraikinetan eta lokaletan altzariak eta gainazalak garbitzea.

• **Beste batzuk:** 2016an, bi prestakuntza proiektu onartu dizkigute.

- **Birkualifikatzeko prestakuntza:** krisiaren eragina jasan duten epe luzeko langabeei zuzenduta dago, hain zuzen ere, enplegagarritasuna hobetzeko birkualifikazio profesionala behar dutenei, eta euren lan arloko beharrizanei erantzuteko diseinatu da. Jarduerak bideratuta daude, alde batetik, bilatze prozesuan pertsonak aktibatuta egoteko, euren gaitasunak hobetuz, informazioa eta baliabideak gehituz eta euren sare sozialak indartuz; eta, beste alde batetik, enplegagarritasuna sustatzeko, trebakuntzaren eta birkualifikazio profesionalaren bitartez. 2016an, prestakuntza hauek egin dituzte, praktikak barne:

  · Sukaldeko laguntzaileak

  · Sukaldeko laguntzaileak eta pintxoak prestatzea

  · Kutxa eta birjartzea.

- **Ahalduntze proiektua gazteak eta emakumeak laneratzeko - 2016:** ahalduntze proiektu horrek gazteak eta emakumeak lan munduan sartzea du helburu. Honako alderdi hauek jorratu dira espezifikoki: enplegurako motibazioa, partaideen helburu profesionala zehaztea, enplegurako zeharkako konpetentziak lantzea, trebakuntza profesionala eta enplegua bilatzeko laguntza.

  Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuen metodologia erabili da, baina proiektuaren elementu berritzailea kolektiboak elkarren osagarri izatea izan da. Horretarako, gazteek eta emakumeek ekintzak konpartitu dituzte eta euren gaitasun onenak azaldu dituzte, talde guztiaren mesedetan.

- **Enplegua lortzeko neurri espezifikoak:** Enplegu Planean parte hartu duten guztiei honako zerbitzu hauek eskaini dizkiete Gurutze Gorriko boluntarioek eta teknikariek.

  · Lan arloko informazio guneak: lan arloko orientazioa eta informazioa enplegu baliabideen inguruan.

  · Zeharkako prestakuntza: enplegua bilatzeko oinarrizko teknikak, gaitasun sozialak eta lanerako gaitasunak, oinarrizko informatika eta Internet, eta abar.

  · Enplegua bilatzeko guneak: ordenagailuak eta Interneteko sarbidea dituzten gelak dira, ordutegi zehatz batean daude zabalik eta Enplegu Planeko edozein partaide joan daiteke enplegua bilatzera.

74.449

Programen orduak, guztira

763

Enpresekin egindako harremanak, guztira

ENPLEGU ZERBITZUAREN DATUEN LABURPENA

145

Erabiltzaileak gizartearen aldetik zailtasun egoeran dauden pertsonekin egiten diren Ibilbide integraletan

80 Emakumeak
65 Gizonak

%46
Intsertzioa

297

Erabiltzaileak gazteekin enpresan egiten diren ibilbide horizontaletan

152 Emakumeak
145 Gizonak

%35,2
Intsertzioa

20

Lanean ikasi erabiltzaileak

17 Emakumeak
3 Gizonak

%25
Intsertzioa

1.098

Erabiltzaileak enplegurako neurri berezietan (zeharkako eskumenak eta enplegurako informazioa)

661 Emakumeak
437 Gizonak

GUZTIRA **1.356** Partaideak **817** Emakumeak **539** Gizonak

PRESTAKUNTZA INSTITUTUA

Giza eta lan prestakuntza.

...

1975etik gaur egunera arte, 6.000 ikasle inguruk egin dituzte L.H.-ko ikasketak. Arrakastaren oinarriak bikaintasun akademikoan eta laneratze ehuneko altuetan daude.

LHko ikasketa horiez gain, Bizkaiko Gurutze Gorriak ibilbide luzea du prestakuntza sozio-sanitarioaren, nazioarteko kooperazioaren, osasunaren, ingurumenaren... munduan, Gurutze Gorriaren beraren titulazioak eta gainontzekoak eskainiz, urtero 7.000ren bat ikasle alor profesionalean zein lan alorrean atzemateko.



Institutuak espezialitate hauek ematen ditu:

- **Goi Mailako Heziketa Zikloak,** esate baterako, Goi Mailako Teknikari Gizarteratzean, Goi Mailako Teknikari Dietetikan eta Laborategian, eta Goi Mailako Teknikari Diagnosi Klinikoan.
- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak,** hau da, Erizaintza Laguntza Zainketetan Teknikari eta Osasun Larrialdietan Teknikari.
- **Gurutze Gorriaren titulazio propioak** alor sozio-sanitarioan, osasun alorrean, nazioarteko kooperazio alorrean, ingurumen alorrean, etab.; .
- **Profesionaltasun Ziurtagiriak – Lanbidek akreditatutako zentroa.**
- **"HENRY DUNANT", Denbora Libreko Eskola:** denbora libreko begirale eta zuzendari.



Gurutze Gorriaren Prestakuntza, gizartearen alde aurrera eramaten dituen jardunbide guztiak mugitzen dituen gardentasunaren eta erabilgarritasunaren aldeko asmoaren baitan dago, eta batez ere pertsona eta kolektibo ahulenen alde. Aktiboa, sortzailea, parte hartzailea eta praktikoa den prestakuntza estilo baten aldeko apustua egiten da.

Ondoren, 2016an zehar Bizkaiko Gurutze Gorriaren prestakuntza eskaintza zehazten da:

LANBIDE HEZIKETA:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:** Erizaintzako arreta eta Arreta Sozio-sanitario Laguntzailea, Osasun Larrialdi teknikaria (1. ikasturtea) eta Mendekotasun Egoeran duden pertsonen Arretarako teknikaria (2. ikasturtea).
- **Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak:** Goi Mailako Dietetika Teknikaria, Diagnostiko Klinikoko Laborategiko TeKnikaria (2. ikasturtea), Laborategi Teknikoko eta Biomedikuntzako teknikaria (1. ikasturtea) eta Goi Mailako Gizarteratze Teknikaria.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA		
Erizaintza Laguntzaile Teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
28	65	93
Osasun Larrialdi teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
10	15	25
Mendekotasun Egoeran duden pertsonen Arretarako teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
4	17	21

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA		
Dietetika Teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
11	28	39
Diagnostiko Klinikoko Laborategiko Tenikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
10	47	57
Laborategi Teknikoko eta Biomedikuntzako teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
9	38	47
Gizarteratze Teknikaria		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
15	37	52
GUZTIRA		
Gizonak	**Emakumeak**	**Guztira**
87	247	334

Lanbide Heziketako ikasleek kontzertatutako ehun enpresa baino gehiagotan egiten dute praktika profesionalen programa: ospitaletan, klinika pribatuetan, egoitza geriatrikoetan, GUFEko zentroetan, catering enpresetan, dietetika zentroetan, osasun garraioko enpresetan, zailtasunak dituzten adingabeen zentroetan, ikastetxeetan, laborategi pribatuetan eta Bioteknologia enpresetako laborategietan.

Curriculum barruko hezkuntza eskaintzaz gain, ikastetxeak oinarrizko eta zeharkako ahalmenak jasotzearekin erlazionatutako jarduerak eta prestakuntza eskaintzen ditu, ezinbestekoak lan munduan sartzeko.

GURUTZE GORRIAREN BEREZKO TITULAZIOAK.

Prestakuntza honek Espainiako Gurutze Gorriaren Heziketa Planean ezarrita dauden irizpideak jarraitzen ditu, eta heziketa akzio horiek lau alorretan banatzen dira:

- **Esku hartzerako prestakuntza.**
- **Inklusiorako eta gizarte partaidetzarako prestakuntza.**
- **Biztanle guztientzako prestakuntza.**
- **Garapen instituzionalerako prestakuntza.**

ESKU HARTZERAKO PRESTAKUNTZA.

- **Gizarte prestakuntza:** gizarte alorreko egitasmoetan (pertsona nagusiak, urritasuna duten pertsonak, haurrak eta gazteak, atzerritarrak, etab.) parte hartzen duten boluntarioak gaitzea eta prestatzea.
- **Sorospen eta larrialdietarako prestakuntza:** boluntarioak prestatzea eta entrenatzea lehen laguntzetan eta sorospenean, hondamendietako eta larrialdietako esku hartzeetan eta laguntza psikologikoan zentratutako jarduketa jarraibideetan. Uretako bilaketako eta salbamenduko berehalako erantzuneko ekipoen entrenamendua eta biktimak sailkatzeko ekipoak.
- **Formación en salud:** boluntarioak osasunerako prebentzioan eta hezkuntzan prestatzea.

INKLUSIORAKO ETA GIZARTE PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza honen helburua gizarteratzea eta gizarte alorreko partaidetza bultzatzea eta pertsonen lanerako aukerak hobetzea da. Prestakuntza ekintzak hezkuntza ez formalarekin erlazionatutako ekintzetatik hasi (ohitura osasungarrien sustapena, trebezia pertsonalen eta sozialen hobekuntza, etab.) eta enplegurako prestakuntzaraino (lan munduan sartu aurreko prestakuntza, gaitasun profesionala, enplegu tailerrak, insertzio sozio-laborala, etab.) doaz.

BIZTANLE GUZTIENTZAKO PRESTAKUNTZA.

- **Osasun alorreko interesa duten ikastaroak:** lehen laguntzak, uretako sorospena eta laguntza psikologikoa.

· **Gizarte alorreko interesa duten ikastaroak:** gizarte egoera zailean dauden emakumeak, umeak eta gazteak, urritasuna duten pertsonak, ikastetxeetako jantokietako begiraleak, elikagaien manipulatzaileak, pertsona nagusiak eta zeinuen hizkuntza.

· **Enpresa publikoei eta pribatuei zuzendutako prestakuntza:** enpresei eskainitako prestakuntza eskaintza zabala.



98

Enpresa publikoei eta pribatuei zuzendutako prestakuntza

GARAPEN INSTITUZIONALERAKO PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza hau Gurutze Gorriko kideen gaikuntzara eta trebakuntzara dago zuzenduta, ideologia eta lan metodologia behar bezala heda ditzaten, eta baita eginbeharrak eta funtzioak bete ditzaten ere.

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK.

Heziketa Institutua **LANBIDEk** ondorengo alorretan profesional ziurtagiriak lortzeko eskaintzen dituen ikastaroak **EGIAZTATZEN DITUEN ZENTROA** da:

· SANT0208 Osasun garraioa.

· SANT0108 Biktima anitzak eragin dituen gertakariaren inguruko osasun arreta.

· SSCS0208 Instituzio sozialen menpe dauden pertsonekiko arreta sozio-sanitarioa.

· AFDP0209 Sorospena ur espazio naturaletan.

· AFDP0109 Sorospena ur instalazioetan.



%11

Esku hartzea

848 Ikasle

%11

Inklusioa eta gizarte partaidetza

837 Ikasle

%73

Biztanleria orokorrean

Gurutze Gorriaren titulazioak, profesionaltasun ziurtagiriak, denbora libreko eskola, enpresak*

5.723 Ikasle

%5

Garapen Instituzionala

419 Ikasle

GUZTIRA ***7.827*** Ikasle

Profesionaltasun Ziurtagirien Prestakuntza
SANT0208 Osasun garraioa ***133*** Ikasle
SSCS0208 Gizarte eta osasun arreta gizarte erakundetan dauden eta mendekotasuna duten pertsonentzat ***130*** Ikasle
GUZTIRA 263 Ikasle

4. "HENRY DUNANT", DENBORA LIBREKO ESKOLA.

"Henry Dunant" eskola 1993. urtean sortu zen, Gazteriaren Gurutze Gorriaren denbora libre taldeetako boluntarioak prestatzeko xedez.

Denborarekin prestakuntza hau biztanle guztiei zabaldu zitzaien, denbora librearen profesionalak gaitzeko asmoz. Egun, prestakuntza Institutuak Eusko Jaurlaritzak homologatutako denbora libreko begirale (220 ordu) eta denbora libreko zuzendari (105 ordu) ikastaroak eskaintzen ditu eta bi **PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI emateko LANBIDEK AKREDITATUTAKO ZENTROA** da:

- SSCB0209 Denbora libreko jardueren dinamizazioa.
- SSCB0211 Denbora libreko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa.

Prestakuntza Denbora Libreko Eskolan
Denbora Libreko Begiralea ***58*** Ikasle



BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean.

...

Bizkaiko Gurutze Gorriak XIII. Berdintasunerako Gunean hartu du parte. Erakundeak berdintasunarekin eta genero indarkeriaren prebentzioarekin duen konpromisoa ikusaraztea da helburua.

"Berdintasun eza ez da berez sortzen, egin egiten dugu" lelopean eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sustatuta, azaroaren 16an kanpaina bat egin zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko balioak sustatzeko eta horri buruz sentsibilizatzeko, Emakunderen autobusean.

Azaroaren 16an, Bizkaiko Gurutze Gorriak hainbat ekintza egin zituen Emakunderen ibilgailu ibiltarian, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantzia sustatzeko. Zenbait jarduera egin ziren, hala nola sentsibilizazio tailerrak umeentzat eta bideoforuma gazteentzat.



I. Berdintasun Planaren diagnostikoan eta garapenean ari da lanean Bizkaiko Gurutze Gorria. Goi zuzendaritzaren nahia da erakundearen alor guztietan genero ikuspegia zeharka txertatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuta egon dadin.

2015-16 ikasturtean, Bizkaiko Gurutze Gorriaren prestakuntza profesionaleko zentroan, Gizarteratze zikloko ikasleek **genero berdintasunaren sustapena** landu dute, zenbait ikasgaitan tailerrak eginez:



Esku hartze sozialaren metodologia moduluan:

- Publizitate sexista aztertzea.
- Genero estereotipoak aztertzea telesailetan eta telebistako programetan eta horrek zer eragin duen publiko gazteenarengan.

Jarduerak:

- Komunikabideetako genero konfigurazioak detektatzea, emakumeak baztertzen dituzten genero estereotipoak edo konfigurazio diskurtsiboak hautemateko.
- Publiko gazteenak kontsumitu ohi duen telebistan genero identitatearen errepresentazioa aztertzea.

Bizikidetza unitateentzako arreta moduluan, eduki hauek landu dituzte:

- Etxeko indarkeria.
- Genero indarkeria: indarkeriaren zikloa, zer arlotan gertatzen den, detekzioa, prebentzioa, arrisku faktoreak, salatzea eta biktima babestea eta abar.

Jarduerak:

- Interneteko orrietan genero indarkeriaren biktimen testigantzak bilatzea.
- Tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzat hurbileko baliabideak bilatzea.
- Gaiaren inguruko hitzaldiak ematea institutuko gainerako ikasleei.
- Ikasleak sentsibilizatzeko jardunaldiak Clara Campoamor elkartearekin lankidetzan.

INGURUMENA

Kontzientzia eta sentsibilizazioa ingurumenaren kontserbaziorako eta hobekuntzarako.

2016an ingurumenarekin zerikusia duten eta pertsona nagusiei zein gazteei zuzendutako hiru proiektu gauzatu ziren. Gauzatu ziren hiru proiektuak hauek dira:

BIZKAIAN IBAITIK MUGITUZ.

Ibaitik Mugituz proiektuak biztanleen mobilizazio estrategiak, atzemate esperientzia instituzionalaren, akziorako boluntarioen prestakuntza zein kudeaketaren eta Ibaien Berriztapenaren plangintza nazionalaren irizpideekin konbinatzea bilatzen du. Gure helburu nagusietakoa ingurumenaren kontserbazio eta hobekuntza jarduerekin zerikusia duten pertsona nagusien zein gazteen parte hartze soziala bultzatzea da.

Jarduketen arro hidrografikoak:

- Ibaizabal-Nerbioi ibaia.
- Aguera ibaia.
- Kadagua ibaia.

Aurrera eramandako jarduerak hauek izan dira:

- Ingurumen alorrean Boluntarioak prestatzea. 2016. Urte honetan Fracking-ari buruzko prestakuntza eskaini da.
- Irteerak landa gunera: 8 irteera udan zehar, ur azterketa bat eta jarduera osagarri bat egiteko, senderismo ibilbidea, bisita gidatua, erriberako hondakinen birziklapen jarduera edo ibaien ingurunea aisiarako gune gisa aprobetxatzeko (herri bazkariak, aire librean egindako bilerak...)
- Bilerak: aurretiazko bat jardueren hasieran eta amaierako bat proiektuaren ebaluaziorako.



INGURUMEN ALORREKO SENTSIBILIZAZIOA.

Beste urte batez, Gurutze Gorriak ingurumen sentsibilizazioari buruzko ekimenak gauzatzen ditu, hainbat kanpainetan parte hartuz.

2016ko Mundu mailako Uraren Eguna eta 2016ko Mundu mailako Birziklapenaren Eguna.

Egun horietako parte hartzearen helburua, biztanleriak baliabide naturalen inguruan aurrezteko eta baliabide horiek zaintzeko duen banakako zein taldeko arduraz kontzientziatzea da, Klimaren Aldaketa motelduz; baliabide hidrikoen erabilerari zein kudeaketari, eta planetako hainbat lekutan gertatzen ari den lehorte zein basamortutze prozesuei, eta sortzen ditugun hondakinek eragiten duten arazoari... arreta berezia eskainiz.

Aurten egin diren ekimenak hauek izan dira:

- **Ingurumen alorreko tailerrak pertsona nagusiekin:** aurten ingurumenari buruzko 15 tailer egin dira pertsona nagusiekin, batzuk etxean uraren kontsumo arduratsuaren inguruan eta beste batzuk hondakinen birziklapenaren inguruan.
- **Sentsibilizaziorako deiak pertsona nagusiei:** hurbiltasun tresnaren bitartez, pertsona nagusiei 628 jarraipen dei egin zaizkie, ura aurreztearen eta birziklatzearen inguruan aholkuak emanez.
- **Eskulan tailerrak birziklatutako produktuekin:** birziklatutako produktuekin 2 eskulan tailer egin dira. Horiek amaitu ondoren, Gurutze Gorriaren lokal berean erakusketa bat egin da, Nagusi izenekoa bezalako kanpo ekintzetan.
- **Birziklapen tailerrak umeekin:** Bizkaian antolatzen diren Eskola Arrakasta taldeetan ura aurrezteari eta birziklatzeari buruzko jarduera hezigarri-dibertigarrien 12 saio egin dira.
- **Urari buruzko erakusketa.** "Uretatik mugituz" erakusketa hainbat ekimenetan aurkeztu da.

INGURUNE NATURALETIK MUGITUZ.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Bioaniztasunerako Fundazioarekin elkarlanean burutu den "Ingurune naturaletik Mugituz" proiektuaren helburua ingurune naturala mantentzeko ekimenak martxan jartzea da, ingurumen boluntarioaren irudiaren bidez, eta jarduera nagusiak heziketa eta ingurumen sentsibilizazioa izan dira.



Ingurumenaren Mundu Egunarekin erlazionatuta 8 tailer eta pertsona nagusiei zuzendutako sentsibilizazio deiak egiteaz gain, aurten bi garbiketa jarduera gauzatu dira (Europa Parkean eta Pagasarri mendian, eta horietan 72 pertsonak hartu dute parte). Horrez gain, hainbat guneetara irteerak egin dira, eta hondakinak jaso dira hondartzetatik, ibaietako uren kalitatea neurtu da eta Ingurumenarekin erlazionatutako baliabideetara bisita gidatuak egin dira. I.

GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA

Haur eta gazteentzako jarduketa programak, hezkuntzaren ikuspuntutik.

...

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) Gurutze Gorriaren gazteen saila da, 8 eta 30 urte arteko umeek eta gazteek osatua, umeei eta gazteei eta horien eragile sozializatzaileei (ikastetxea, familia, elkarte mugimenduak, komunikabideak, etab.) zuzendutako ekintza eraldatzailea egiteko xedez, horien garapen integrala eta autonomia pertsonala indartuz eta euren gertueneko ingurunean jardunez.

2016an, nabarmentzekoa izan da eskualdeko batzarren ugaritzea. Ondorioz, eskualde batzuetan gazteen saila sortu da, eta umeentzako eta gazteentzako arreta areagotzea ekarri du horrek.

Gaur egun, GGG ondorengo batzarretan dago: Bilbon, Durangon, Enkarterrin, Gernikan, Uribealdean, Arratialdean eta Nerbioi Haranean.



Gazteen Gurutze Gorriko 172 boluntarioren lanari esker 20.197 esku hartze gauzatu ahal izan dira, 9.124 partaiderengana helduz, zenbait proiekturen bitartez.

ESKU-HARTZEA

Eskola arrakastaren sustapena

Zailtasun sozialak dituzten umeen eskola arrakasta sustatu dugu, honako batzar hauetan: Bilbon, Enkarterrin, Nerbioi Haranean, Uribealdean eta Arratialdean. Bertan, 14.000 jarduera baino gehiago egin dituzte eta ia 200 pertsonak hartu dute parte.



Jolas hezigarriak

Jolasaren bitartez, zailtasun sozialak dituzten umeen eta gazteen bizi kalitatea hobetu dugu eta adingabeen garapen pertsonalerako gaitasunak bultzatu ditugu.

Cibercaixa - Umeak ospitalean

Dibertitzeko uneak oparitzea ospitalean dauden umeei, nerabeei eta gazteei. Ospitalizazioaren eragina murrizten saiatzen gara txikienengan eta senideengan. Guztira, 2.360 pertsonak baino gehiagok jaso dute arreta.

PARTAIDETZA

PINEO - Umeen partaidetza eta aisia eta denbora librea

Ibilbide ludikoa eta hezitzailea eskaini diegu, Gazteen Gurutze Gorriaren bitartez, euren inguruan gizartea eraldatzeko interesa erakutsi duten 700 ume, nerabe eta gazte baino gehiagori.

Guztira, 3.329 jarduera egin dira, beste behin ere antolatu diren hiriko udalekuak barne.

Boluntario gazteen partaidetza

Jardueren eta topaketen antolatzaile eta partaide izan gara, boluntario guztien inplikazioa dinamizatzeko eta sustatzeko asmoz. Izan ere, boluntarioek bakearen, berdintasunaren eta errespetuaren kultura jasotzen eta bultzatzen dute parte hartuta.

- EKIN topaketa.
- Trebatuz topaketa.
- Actua topaketa.
- Udako eskola.
- PINEO topaketa.



SENTSIBILIZAZIOA

2016an, informatzeko eta sentsibilizatzeko 71 jarduera eginda, 3.360 pertsona sentsibilizatu dituzte gai hauen inguruan:

- Hezkuntza giza eskubideen eta haurren eskubideen arloan.
- Kulturarteko hezkuntza. Aniztasuna dugu aukerarik onena.
- Ingurumenari buruz informatzea eta sentsibilizatzea.
- Jolas hezigarriak.
- HIESaren eta beste gaixotasun batzuen prebentzioa eta hezkuntza.
- Genero indarkeriaren sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- Hezkidetza eta heziketa ez sexista.
- Larrialdietarako sentsibilizazio eta informazio taldea.
- Hezkuntza afektibo-sexuala.
- Drogen kontsumoa prebenitzea.
- Sexu heziketa.
- Jokabide oldarkorrak prebenitzea.



PRESTAKUNTZA

GGGk kalitatezko esku hartzeen aldeko apustua egiten du. Horregatik, garrantzia ematen dio egunero-egunero jarduerak programatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dituzten boluntarioen prestakuntzari.



GGGren Denbora Libreko Eskolak gazteria sustatzea du helburu. Horretarako, ezagutzak eta gaitasunak garatzen dituzte, aisialdian modu aktiboan eta eraginkorrean esku har dezaten gizarte, hezkuntza eta animazio arloko proiektuetan, aldi berean esperientziak trukatzeko espazioa sortuz.

2016an, GGGren prestakuntza ibilbidearen 10 prestakuntza espezifiko gauzatu dira. 138 boluntariok eman dute izena eta guztira 1.290 eskola ordu baino gehiago eman dituzte.

PROIEKTUAK (partaideak)

Osasunarentzako promozioa eta heziketa	2.160
Nazioarteko garapenerako eta elkarlanerako heziketa	628
Jolas hezigarriak	2.153
Partaidetza	494
Eskola arrakastaren sustapena	190
Umeak ospitalean	3.150
Hezkidetza eta heziketa ez sexista	349
GUZTIRA 9.124	

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Zaurgarritasun eta bazterketa egoeran dauden pertsonen aldeko konpromisoaren kanpo proiekzioa.

...

2016an gauzatutako Garapenerako Lankidetza Proiektuak

- **Emakume taldeek egindako produktuen komertzializazioa hobetzea, garapen jasangarriaren ikuspegitik (BURKINA FASO):** EUSKADIKO GURUTZE GORRIAREN LANKIDETZA FUNTSA.

2016an gauzatutako Gizarte Laguntza Proiektuak

- **Zaurgarritasun egoeran dauden emakume siriarrei, palestinarrei eta Siriako gatazka dela eta bertara etorritakoei laguntza obstetrikoa eta ginekologikoa. IV. fasea (LIBANO):** BIZKAIKO FORU ALDUNDIA eta EUSKADIKO GURUTZE GORRIAREN LANKIDETZA FUNTSA.
- **Mendiko Bilaketa, Laguntza eta Erreskate patruila migrazio krisiaren ondorioz muga gurutzatzeko ahaleginetan ari diren pertsonei arreta emateko (SERBIA):** BARAKALDOKO UDALA
- **Siriako biztanleentzako laguntza, sukalde kitak bidaliz (SIRIA):** BARAKALDOKO UDALA.

Garapenerako hezkuntzaren arloko jarduerak, 2016an egindakoak

- **ERAKUSKETA: Hurrengo geltokia:** etorkizuna, Bilboko Metroko hainbat geltokitan, apirilaren 15etik maiatzaren 15era eta ekainaren 20tik uztailaren 31ra bitartean. 3.267.019 bidaiari igaro dira bertatik.
- **HITZALDIA:** Europako migrazio krisiak, Sopuertako Udalak antolatuta, apirilaren 15ean.





- **HITZALDI HONETAN PARTE HARTZEA:** errefuxiatuak. Haien eskubideak. Gure betebeharrak, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, irailaren 29an. Gurutze Gorriaren esku hartzea, Fatima Cabello oinarrizko osasun zaintzak egiteko larrialdi unitatearen arduradunaren eskutik.
- **TAILERRAK:** errefuxiatu bat naiz. Arratialdeko eskualdeko batzarrak Arratialdeko ikastetxeetako 364 umeri eman dizkie tailerrak, maiatzean.
- **KANPAINAK SARE SOZIALETAN:** "Gerrak ere baditu mugak" mannequin challengea, abenduaren 17an.
- **INFORMAZIO SAIOAK IKASTETXEETAN:**
  · "Gurutze Gorriaren logistika humanitarioa eta hondamendiak kudeatzeko sistema", urriaren 6an, Rekord

autoeskolan, osasun garraioari buruzko agiria lortzeko ikasten ari direnei zuzenduta.

· "Gurutze Gorriak hondamendien aurrean erantzuteko duen sistema", azaroaren 4an, Gurutze Gorriaren Institutuan, osasun larrialdietako teknikari ikasketak egiten ari direnei zuzenduta.

Pireo - Grezia - Maiatzean itzultzailea bidaltzea Skaramags esparrura

- Arabieraren eta gaztelaniaren arteko itzulpen lana errefuxiatuekin, esparruko osasun, higiene eta bitartekaritza taldeei laguntzeko. Horrela, errazagoa izan da arabiar komunitatearekin hartu-emanak izatea, beharrizanak identifikatzea eta edozein gatazka konpontzea.



NORK EGITEN DU?

-



BOLUNTARIOAK, LANGILEAK, PARTAIDETZA ETA TOKI MAILAKO GARAPENA

Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioetan dago.

...

Gurutze Gorriaren indarra bere **boluntarioetan** dago: horiek dira lan egiten dutenak pertsona nagusiak ahalik eta laguntasun gehien izan dezaten, istripuen biktimei arreta eskaintzen dietenak eta erreskateetan parte hartzen dutenak, gazteak balioetan hezten dituztenak, gaixorik dauden umeekin jolasten dutenak ospitaletan, pertsonen laneratzean eta gizarteratzean laguntzen dutenak... hau da, pertsonei gertuko ingurunetik erantzunak ematen dizkiete, auzoetan eta erkidegoetan dugun presentzia finkatuz, erkidego ikuspegiarekin lan eginez eta gertutasuna gure jarduketaren agertoki bilakatuz.

Gurutze Gorriak, "Gurutze Gorriaren xede eta helburuen baitan, modu erreflexiboan, solidarioan eta interes pertsonalik gabe komunitatearen alde jardueraren bat garatzen duen pertsona oro" gisa definitzen ditu **boluntarioak.**

Bizkaiko Gurutze Gorriak Boluntarioen eta Parte hartzearen Plan honen kudeaketaren faseak garatzen dituzten pertsona boluntarioez zein langileez osatuta dagoen **Boluntarioen Arreta Puntua** dauka, eta gainera, **Informazio eta Laguntza Puntu** gisa ere burutzen ditu funtzioak.



BIZKAIKO BOLUNTARIOAK

10.485



281	JASOTAKO ESKARIAK 810	529
180	ALTAK 522	342
%64,05	SARTZE RATIOAK %64,44	%64,65

BOLUNTARIOAREN SOSLAIA

GUZ.	%	GIZONAK	EMAKUMEAK	
661	%6,30	235	426	+65
181	%1,73	74	107	61 - 65
623	%5,94	272	351	51 - 60
2.471	%23,57	1.889	582	41 - 50
3.347	%31,92	1.839	1.508	31 - 40
2.419	%23,07	925	1.494	21 - 30
425	%4,05	152	273	16 - 20
94	%0,90	43	51	14 - 15
264	%2,52	112	152	-14



BOLUNTARIOEI ARRETA ESKAINTZEKO PUNTUA

2016. urtean, **Boluntarioen Arreta Puntuak** zuzeneko 4.094 arreta ekintza gauzatu dizkie Erakundeko boluntarioei, bazkideei, erabiltzaileei eta ikasleei, eta baita Gurutze Gorriak Bizkaian eskaintzen dituen baliabideen edo/eta zerbitzuen inguruko informazioa eskatu duten pertsonei ere.

Arreta horiek hauetan tipifikatzen dira: informazioa, laguntasuna, boluntarioen kudeaketa eta "Zahartze Osasungarrirako" Puntuan proiektua.

GUZTIRA 2016

Guztira ***4.094***
Hileko batez bestekoa ***341,17***

Informazioa
Guztira ***2.469***
Hileko batez bestekoa ***205,75***

Boluntariotza
Guztira ***956***
Hileko batez bestekoa ***79,67***

Puntuan
Guztira ***562***
Hileko batez bestekoa ***46,83***

Laguntasuna
Guztira ***107***
Hileko batez bestekoa ***8,92***



%***60,31***
Informazioa

%***23,35***
Boluntariotza

%***13,73***
Puntuan

%***2,61***
Laguntasuna

BOLUNTARIOTZAREN ESTATU MAILAKO KONGRESUA VALENTZIAN

Otsailaren 12an, 13an eta 14an Gurutze Gorriko Boluntariotzaren Estatu Mailako Kongresua egin zen Valentzian, topaketarako eta gogoetarako espazioa sortzeko helburuz, boluntarioek euren ahalmen eraldatzaileari buruzko kontzientzia handiagoa jasotzeko, partaidetzarako era berriak garatzeko eta, horrela pertsonen bizitza hobetzen laguntzeko.

Euskadiko Gurutze Gorriaren ordezkaritza Estatu osoko 700 boluntario baino gehiagorekin elkartu zen, boluntarioen gogobetetzea hobetzeko funtsezkoak diren puntuak, lankidetzarako era berriak eta jardunbide berritzaileak konpartituz.





LANTALDEA 2016



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2016AN (hondartza barik)

GIZONAK		EMAKUMEAK
35	102	67

LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2016AN (hondartzekin)

GIZONAK		EMAKUMEAK
81	152	71

LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2016AN PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO (hondartza barik)

GUZ.	GIZONAK	EMAK.	
10	9	1	Sorospenak eta larrialdiak
45	12	33	Gizarte esku-hartzea
2		2	Boluntariotza
5	1	4	Prestakuntza
17	5	12	Lanbide Heziketa
21	7	14	Administrazioa eta Kudeaketa
2	1	1	Gazteriaren Gurutze Gorria



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2016AN ASANBLADA BAKOITZEKO (hondartza barik)

GUZ.	GIZONAK	EMAK.	
2	2		Bermeo
3		3	Durangaldea
1		1	Gernika
1		1	Enkarterri
4	3	1	Lea Artibai
			Mungia
9	6	3	Uribealdea
2	1	1	Nerbioiko Harana
5	2	3	Ezkerraldea
5	2	3	Arratiako Harana
5		5	Bilbo
65	19	46	Bizkaiko Probintzia Bulegoa



ZELAN EGITEN DUGU?

-



BALIABIDEAK

Ekipamendu materialak jarduera gauzatzeko.

...

ANBULANTZIAK | 16

· OBE (Oinarrizko Bizi Euskarri) Anbulantziak | **11**

· BEA (Bizi Euskarri Aurreratu) Anbulantziak | **5**

BIKTIMEN SAILKAPENERAKO ERIE KAMIOIA | 1

ATOIAK | 3

· Biktimen sailkapenerako ERIE atoia | **1**

· Itsasontziaren atoia | **2**

AUTOMOBILAK | 8

· Eragiketa buruaren ibilgailua | **1**

· GNC hurbilketa ibilgailua | **2**

· Hurbilketa ibilgailu hibridoa | **1**

· Hurbilketa ibilgailua | **4**

GARRAIO EGOKITURAKO IBILGAILUA | 13

· GLC garraio egokituko ibilgailua | **2**

· Garraio egokituko ibilgailua | **11**

OSASUN POSTU AURRERATUETAKO IBILGAILUAK ETA OKUPAZIOA | 6

FURGOI MISTOAK LARRIALDIETARAKO ETA GIZA LAGUNTZARAKO | 5

LUR OROTAKOAK | 13

· Itsasoko erie Pick Up-a lur orotako ibilgailua | **1**

· Itsasoko erie furgoia lur orotako ibilgailua | **1**

· Pick Up-a lur orotako ibilgailua larrialdietarako eta giza laguntzarako | **1**

· PSL Pick Up-a lur orotako ibilgailua | **1**

· Lur orotakoa – Mendiko taldeak | **3**

· Lur orotakoa Mendi taldeetako Pick Upa | **1**

· Lur orotakoa Itsasoko Salbamendurako eta Hondartzetarako laguntza | **5**

ITSASONTZIAK | 32

· AB maila | **2**

· B maila | **7**

· C maila aurreratua | **4**

· C maila | **9**

· C maila (barruko urak) | **7**

· Wave Boat - Kaskoa itsasoko motoa | **3**

ERRESKATEKO ITSASOKO MOTOAK | 12

ERRESKATEKO QUADAK | 4

ERRESKATEKO BUGGYA | 2

KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Zorroztasuna eta informazio gardentasuna Gurutze Gorriaren jarduera gizartera hurbiltzeko, eragin mediatikoen bitartez.

...

Bizkaiko Gurutze Gorriak Erakundearen printzipioekin eta balioekin bat etorriko den komunikazio politikaren aldeko apustua egiten du.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren jarduera ezagutzeko zenbait kanal propio erabiltzen dira, www.cruzrojabizkaia.org eta www.institutocruzrojabizkaia.org webguneak, adibidez. Sare sozialetako soslaiak ere lantzen dira: Facebook, Twitter, Youtube, Flickr eta Instagram. Erabiltzaileekin elkarrekintza gehien duten soslaiak Facebook 5.008 "atsegin dut"-ekin eta 4.764 jarraitzaile dituen Twitter dira. Pertsona edo marka batek Interneten duen eragina 1etik 100era neurtzen duen Klout indizeak 68 eman zuen.

Halaber, harreman estua dugu erakundeekin eta komunikabideekin. Helburua, Bizkaiko Gurutze Gorriaren goiburuaren eta jardueraren bozgorailu gisa arituko diren zenbait eragilerekin lankidetzarako sinergia ezartzea da.

2016an 1.425 eragin mediatiko egon dira, horietatik 757 online agerpenak izan dira, 478 albiste argitaratu dira prentsan, 118 esku-hartze irratian, 72 telebistan eta 2 publizitate intsertzio. 54 prentsa ohar bidali dira, eta 9 prentsaurreko egin dira: migrazio krisialdiari buruzko erakusketa Bilboko Metroan, lankidetza hitzarmena Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin, Urrearen Zozketa, Hitzarmena Ezkerraldendarekin, 2015eko jarduera txostenaren aurkezpena, "Uda honetan maite ezazu zure burua" kanpaina, Banderatxoaren eguna eta jostailu kanpaina.

Hondartzetako komunikazio alorrean, bidalitako 122 prentsa deialdiak eta hondartzen egoerari eta banderei buruzko informazioa emateko izandako irratiko 718 esku-hartzeak azpimarratu behar dira.

Gure eskerrona adierazi nahi diegu komunikabideei eta Bizkaiko Gurutze Gorriaren jarduerak hedatzeko komunikazio ekintzetan laguntzen duten gainerako erakunde guztiei.

* Ematen diren datu guztiak 2016ko abendukoak dira.

KOMUNIKAZIOA

1.425 eragin mediatiko

ONLINE	PRENTSA	IRRATIA	TB
757 Albiste	***478*** Albiste	***118*** Albiste	***72*** Albiste

5.008 Atsegin dut

www.facebook.com/cruzrojabizkaia

4.764 Jarraitzaile

@cruzrojabizkaia

170 Jarraitzaile

www.youtube.com/user/cruzrojabizkaia

41 Jarraitzaile

www.flickr.com/photos/cruzrojabizkaia/sets

930 Jarraitzaile

www.instagram.com/cruzrojabizkaia

ZELAN FINANTZATZEN DA?

-



BAZKIDEAK

Elkartasuna handiago egiten duten 23.414 bazkide Bizkaian.

...

Bizkaiko gizartearen elkartasuna handiagoa da urtez urte. Bizkaiko Gurutze Gorriak gizartearen laguntza du aurrera daraman kanpaina bakoitzean, eta horrek persona eta erakunde askoren konpromisoa eta esfortzua agerian uzten ditu.

Bizkaiko Gurutze Gorriak 23.414 bazkiderekin itxi du 2016. urtea. Aurreko urtearekin %6,77ko hazkundea erakusten du horrek. 2011tik bazkide kopuruak etengabe egin du gora, krisia hor dagoen arren.

BAZKIDEEN EBOLUZIOA

23.414

GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	ENPRESAK
20.401	8.072	11.728	601
21.930	8.710	12.654	566
+%6,77	+%5,36	+% 7,9	-3,00%
23.414	9.177	13.654	583



FUNTSEN BILKETA ETA ENPRESEN LANKIDETZA

699 enpresa eta erakunde egoera zaurgarrienean daudenekin lankidetzan.

...

Ia enpresa eta erakunde beste modu dago Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritzeko. Gure erakundearekin inplikatzen dira, proiektu edo ekintza sail jakin bat aurrera ateratzeko.

2016. urte honetan, Bizkaiko Gurutze Gorriak horien lana aintzatetsi nahi izan du, maiatzaren 11n Bilbon egin zen ekitaldiarekin: Bizkaiko Gurutze Gorriaren I. Gizarte Erantzukizun Jardunaldia.

Gure eskerrona aurrera daramagun lan solidarioan laguntzen diguten ia 700 enpresei eta erakundeei.



BANDERATXOAREN EGUNA

Gure kaleetan ohikoa da jada, urteko azken egunetan Gurutze Gorriaren Banderatxoaren Egun tradizionala. Ezkerraldeko, Bilboko eta Getxoko kaleetan mahaiak jartzen dituzte eta bertan egoten dira Erakundeko boluntarioak, itsulapikoak eskuan dituztela.

Edizio honetan bildutakoaren jomuga, Gurutze Gorriak zaurgarritasun egoeran dauden umeen alde egin duen lana izan da.

Bilbon eta Ezkerraldean urriaren 11n ospatu zen, eta bertan 27.872,72 € eta 3.700 € bildu ziren, hurrenez hurren. Uribe Aldeko Asanbladak abenduan ospatu zuen, 11.655,75€ jasoz.



Banderatxoa Bilbo	Banderatxoa Uribealdea	Banderatxoa Ezkerraldea
27.872,72 €	***11.655,75*** €	***3.700*** €



SORTEO DE ORO 2016

Gurutze Gorriaren Urrearen zozketa funtsezko formula da gure Erakundean, gure gizarteko talde zaurgarrienei laguntzeko. 35 urte baino gehiagoko historia duen zozketaren bitartez, Bizkaiko Gururtze Gorriak laguntzeko beste bide bat eskaintzen du, txartelak erosiz. Eskerrik asko “Munduko zozketarik solidarioenean” laguntzeagatik.



617.145 € Salduta 2016ko Urrearen Zozketan.

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

-



KUDEAKETA EKONOMIKOA

Bizkaiko Gurutze Gorria zifratan.

...

GASTUAK JARDUERA BAKOITZEKO	2016	%
Gazteriaren Gurutze Gorria	**108.728**	**1,04**
Boluntarioak	**157.764**	**1,51**
Prestakuntza institutua	**1.884.004**	**17,99**
Lanbide Heziketako Ikastetxea	1.473.711	14,07
Prestakuntza eta Denbora Libreko Eskola	410.293	3,92
Gizarteratzea eta Enplegua	**2.472.354**	**23,61**
Sorospenak eta Larrialdiak	**3.464.183**	**33,08**
Funtsen kudeaketa, administrazioa eta bilketa	**1.857.346**	**17,74**
Nazioarteko lankidetza eta Elkartasun Funtsa	**469.078**	**4,48**
Komunikazioa	**58.605**	**0,55**
Guztira	**10.472.062**	**100,00**



%1,04
Gazteriaren Gurutze Gorria

%1,51
Boluntarioak

%17,99
Prestakuntza institutua

%23,61
Gizarteratzea eta Enplegua

%33,08
Sorospenak eta Larrialdiak

%17,74
Funtsen kudeaketa, administrazioa eta bilketa

%4,48
Nazioarteko lankidetza eta Elkartasun Funtsa

%0,55
Komunikazioa

FINANTZAKETA ITURRIAK	2016	%
Zerbitzuak eskaintzea	2.973.392	28,02
Funtsak jasotzea*	3.039.223	28,64
Diru-laguntzak eta dohaintza pribatuak	3.974.863	37,45
Beste kudeaketa sarrera batzuk	199.653	1,88
Finantzazkoak	11.886	0,11
Kapital diru-laguntzak eta ez ohikoak	414.521	3,91
Guztira	**10.613.538**	**100,00**

*FUNTSAK JASOTZEA	2016	%
Urreraren zozketa	617.145,00	20
Bazkideak	2.362.355,89	78
Kuestazioa	40.917,86	1
Bestelakoak	18.804,19	1
Guztira	**3.039.222,94**	**100,00**

EMAITZA	141.476



%28,02 Zerbitzuak eskaintzea

%28,64 Funtsak jasotzea

%37,45 Diru-laguntzak eta dohaintza pribatuak

%1,88 Beste kudeaketa sarrera batzuk

%0,11 Finantzazkoak

%3,91 Kapital diru-laguntzak eta ez ohikoak

JARDUERAREN DATUAK

310.256 zerbitzu eginda 87.347 partaide edo erabiltzailerentzat 2016an.

...

Partaideak eta zerbitzu guztiak 2016	Partaide erabiltzaileak	Zerbitzuak
Gizarte esku hartzea	**40.393**	**264.816**
Pertsona nagusiak	4.478	86.794
Urritasuna duten pertsonak	255	21.352
Gertutasuneko metodologia	11.835	48.843
Etorkinak	2.111	15.559
Enplegua	1.356	37.450
Errefuxiatuak	117	3.599
Umeak eta familia	256	2.018
Gabonetako Jostailu kanpaina	2.150	6.329
Erkidegoaren aldeko lanak	41	1.003
Gizarte laguntza zaurgarritasun egoeretan eta Orain inoiz baino gehiago Deial-dia (eskolako materiala, hotzetarako jantziak, lo egiteko zakuak, higiene kitak banatzea, laguntza eta jarraipena)	17.766	41.602
Tele-laguntza mugikorra genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	28	267
Nazioarteko lankidetza - Sentsibilizazioa	**12.939**	**12**
Ingurumena	**1.406**	**23**
Prestakuntza institutua	**8.385**	**774**
Lanbide Heziketa	334	14
Profesionaltasun ziurtagiriak, titulu propioak	8.051	760
Gazteriaren Gurutze Gorria	**9.124**	**20.198**
Itsasoko Salbamendua, Hondartzetako Salbamendua, Sorospenak eta larrialdiak	**11.632**	**11.303**
Larrialdietarako berehalako erantzuneko taldea (ERIES)	406	61
Prebentziozkoak	1.401	1.392
Hondartzetako estaldura	9.480	9.468
Garraio sozio-sanitarioa	168	167
Itsasoko Salbamendua	177	325
Osasun Plana	**3.468**	**13.020**
GUZTIRA	**87.347**	**310.256**

GIZARTE ESKU HARTZEA



ARRETA JASO DUEN BIZTANLERIA



ERABILTZAILEAK URTEAN



72.741	74.511	87.347
2014	2015	2016

ARRETA PLANEN ARABERA 2016



%46,24 Gizarte Esku Hartzea

%9,60 Prestakuntza

%1,61 Ingurumena

%10,45 Gazteriaren Gurutze Gorria

%3,97 Osasun Plana

%13,32 Sorospenak eta Larrialdiak

%14,81 Nazioarteko Lankidetza

KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK



KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Hordartzetako sorospen eta salbamendu zerbitzurako UNE-en ISO 9001:2008 kalitate-sistema eta ingurumenaren UNE-en ISO 14001:2004 ziurtagiria.


Certificado del
Sistema de Gestión Ambiental

CRUZ ROJA ESPAÑOLA

AENOR


Certificado del
Sistema de Gestión de la Calidad

AENOR

CRUZ ROJA ESPAÑOLA
Oficina Provincial Cruz Roja en Bizkaia (Prevención, salvamento y socorrismo)

AENOR

GKE Benchmarking kudeaketaren gardentasunagatiko ziurtagiria:

· **9 alderdi** aztertzen dira: Zuzendaritza Batzordea, Espa-rru Estrategikoa, Gerentziaren Zintzotasuna, Komunikazioa eta Irudi Publikoa, Giza Baliabideak, Finantza-gerentzia eta Funtsen Kudeaketa, Eragiketak, Emaitzak eta Etengabeko Hobekuntza).

SGS ziurtagiriaren berriztapena.

SGS
VERIFIED
NGO Benchmarking
A voluntary system measuring
Accountability to Stakeholders
and Compliance with Best Practices
www.sgs.com/ngo

AENOR kalitate-ziurtagiriak:

· Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra.

· Heziketa.

AENOR
ER
Empresa Registrada
UNE-EN ISO 9001

ER-0385/2007

Ezarritako beste kalitate-sistema batzuk:

· Borondatezko lanaren kudeaketa.

· Interlabora Sarea, etorkinentzako enplegua.